

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4491

EBAZPENA, 2024ko irailaren 13koa, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita honako hauentzako laguntzen deialdian aurreikusitako ebaluazio-batzordearen osaera: Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteak, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteak (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazioak eta konfederazioak, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibak.

Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteentzako, hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteentzako (Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoak alde batera utzita), hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleen gurasoen elkarte-entitateen federazio eta konfederazioentzako, eta hezkuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen titulartasuna duten hezkuntza-kooperatibentzako laguntzetarako deialdiaren 12. artikulua (2024ko irailaren 2ko EHAA), prozedura arautzen duenak, ezartzen du Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak batzorde bat izendatuko duela, laguntzak esleitzeko proposamena egiteko, honako kide hauekin:

– Ikastetxeen eta Batxilergoaren Plangintza Zerbitzuaren ordezkari bat, zeina batzordeburua izango baita.

– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako Hezkuntza Berrikuntzaren lurralde-burutza bakoitzeko ordezkari bana.

– Ikastetxeen eta Batxilergoaren Plangintza Zerbitzuaren ordezkari bat, zeina idazkaria izango baita.

Halaber, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emakida-proposamena egiteaz arduratuko diren organoen osaera.

Aurrekarietan jasotakoa dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Ebazpen honetan aipatutako deialdiaren 12. artikuluan jasotako ebaluazio-batzordearen osaeraren berri emango da:

Batzordeburua:

Eugenio Jimenez Ibañez Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria, edo hark eskuordetzen duena.

Batzordekideak:

Maite Ortuzar Bilbao, Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berrikuntzaren Burutzaren ordezkaria.

Teresa León Eguren, Bizkaiko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berrikuntzaren Burutzaren ordezkaria.

2024ko irailaren 30a, astelehena

Isabel Luna Garcia, Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntza Berrikuntzaren Burutzaren ordezkarria.

Idazkaria:

Estibaliz Medina Sáenz, Ikastetxeen eta Batxilergoaren Plangintza Zerbitzuko teknikaria.

Ebaluazio-batzordea balio osoz eratzat joko da batzordeburua eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertaratzen direnean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 13a.

Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria,
EUGENIO JIMENEZ IBAÑEZ.